**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **08. Ekonomia Sustatzeko**<br>**08. *Promoción Económica*** | **03.** Enpresa Sustapena<br>**03.** *Promoción Empresarial* | **426.106** Enpresa Sustapena<br>**426.106** *Promoción Empresarial* |

Ekonomia Sustatzeko Sailaren eginkizuna Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea bultzatuz Bizkaiko enpresen eremuan eta, aldi berean, Bizkaiko garapen orekatua erraztea. Horretarako, estrategia osoa jarri da martxan, konpromiso hori betetzeko, bost jarduketa ardatzetan oinarrituta. Hauexek biltzen dituzte: kanpoko proiekzioa, ekintzailetza, industria eta lehiakortasuna, talentua eta lurralde oreka.

La misión del Departamento de Promoción Económica es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral para hacer efectivo este compromiso basada en cinco ejes de actuación que aúnan proyección exterior, emprendimiento, industria y competitividad, talento y equilibrio territorial

Enpresak Sustatzeko Zerbitzuak garaturiko jarduketak ardatz horien baitan sartzen dira, eta besteak beste, hauexek lortu nahi ditu: enpresa berrien sorkuntza eta ekintzaileak bultzatzea eta etorkizuneko proiektuak eta jarduerak sustatzea, baita giza kapitalaren kualifikazioa eta horrek lurraldeko sare ekonomikoarekin duen konexioa sustatu eta bultzatzea ere, hori guztia enpleguaren sorkuntza eta Bizkaiko industria eta enpresa sarea sustatzeko xedearekin eta, horren ondorioz, aurrerabide ekonomikoa eta soziala lortzeko xedearekin. Horiek jarduketa guztiak bat datoz, argi eta garbi, Bizkaia Egiten deritzon estrategiarekin.

Las actuaciones que se desarrollan desde el Servicio de Promoción Empresarial se enmarcan en esos ejes buscando, entre otros aspectos, apoyar la creación de nuevas empresas y su acelaración, apoyar a las personas emprendedoras e impulsar proyectos y actividades de futuro, dinamizar el ecosistema de emprendimiento, así como promover y favorecer la cualificación de capital humano y su conexión con el tejido económico del Territorio; todo ello con el objeto de impulsar la generación de empleo y la promoción del tejido industrial y empresarial de Bizkaia y, en consecuencia, el logro de un progreso económico y social; estando todas estas actuaciones claramente alineadas con la estrategia Bizkaia Egiten.

Ekintzailetza hazkunderako eragile garrantzitsua da, baita funtsezko gakoa ere ekonomiaren susperraldirako. Ekonomia Sustatzeko Sailak konpromisoa du enpresa berrien sustapenarekin, eta berariaz, enpresarik berritzaileenekin. Izan ere, funtsezko baliabidea da Bizkaian aberastasuna eta enplegua sortzen dela bermatzeko. Helburu horiek betetzeko, elkarlanean dihardugu Beaz, SAU, Seed Capital Bizkaia, SA, Seed Capital Bizkaia Mikro, SA eta Crowdfunding, SL foru sozietateekin. Halaber, erakunde publikoekin eta pribatuekin dihardugu elkarlanean ekintzailetza sustatzeko eta susperraldi ekonomikoa bultzatzeko jarduera multzoa garatzeko.

El emprendimiento es un importante motor de crecimiento y un factor clave para la recuperación económica. El compromiso del Departamento de Promoción Económica con la promoción de nuevas empresas, y específicamente con aquellas de carácter más innovador, constituye un instrumento clave para garantizar la creación de riqueza y empleo en Bizkaia. Para la consecución de dichos objetivos, se colabora con las sociedades forales Beaz, SAU, Seed Capital Bizkaia, SA, Seed Capital Bizkaia Mikro, SA y Crowdfunding, SL. Asimismo, se colabora con otras entidades públicas y privadas para el desarrollo conjunto de actividades de fomento del emprendimiento y de impulso de la reactivación económica.

Giza baliabideak merkatuaren eskakizun berrietara egokitzea, bikaintasuneko prestakuntza babestuz eta kualifikazio zabala eta esperientzia profesionala duten pertsonak Bizkaira erakarri, aberriratu eta lotzeko erraztasunak jarriz, eta, era berean, lurraldean kalitatezko enplegua sortzeko eta finkatzeko aukera emanez.

Halaber, 2022ko ekitaldian, gardentasunerako ahaleginak egiten jarraitu da.

Helburu horiek betetzeko, 2022an ondoko jarduera hauek egin dira ekintzailetza bultzatzeko arloan ezarritako helburuei dagokienez:

- Enpresa Berritzaileak Sortzeko Programa abiaraztea eta zerbitzuen multzo bat ateratzea, pertsona eta entitate ekintzaileei berariaz zuzentzen zaiena.

  Programa horrek enpresa proiektu berritzaileen garapena, enpresa berritzaile berrien sorrera, horien jarduera bizkortzea eta Bizkaiko ekintzailetza-sistemaren dinamizazioa laguntzen ditu diruz. SPRIrekiko koordinazioa handitzen jarraitu da, Ekintzaile programako eta Enpresa Berritzaileak Sortzeko programaren 1. arloko eskaeren baterako ebaluazioari eutsita, enpresa proiektu berritzailea edo negozio unitate berria definitzeko gastuei dagokienez.

  2022an, 64 enpresa proiektu berritzaile lagundu dira diruz. Lagundutako eskaera guztietatik, 25 barruko ekintzailetzako proiektuei dagozkie.

  Halaber, 2022an, 28 enpresa berriren sorrera lagundu da diruz. Horietatik, 8 barruko ekintzailetza-proiektuei lotutakoak dira.

  Ekintzaletza-sistemaren dinamizazioaren esparruan, 6 proiektu diruz lagundu dira.

Adaptar los recursos humanos a las nuevas exigencias del mercado, a través del apoyo a la formación de excelencia y facilitando la atracción, repatraición y vinculación a Bizkaia de personas con amplia cualificación y experiencia profesional posibilitando la creación y consolidación de empleo de calidad en el Territorio.

Asimismo, en el ejercicio 2022, se ha seguido realizando un esfuerzo por la transparencia.

Para la consecución de dichos objetivos, en 2022 se han llevado a cabo las siguientes actuaciones en relación con los objetivos marcados en el área de impulso del emprendimiento:

- Puesta en marcha del Programa Creación de Empresas Innovadoras y lanzamiento de una batería de servicios dirigidos específicamente a las personas y entidades emprendedoras.

  Este programa subvenciona el desarrollo de proyectos empresariales innovadores , la creación de nuevas empresas innovadoras, su aceleración y la dinamización del ecosistema de emprendimiento de Bizkaia. Se ha continuado incrementando la coordinación con la SPRI, manteniendo la evaluación conjunta de solicitudes de los programas Ekintzaile y del área 1 del programa Creación de Empresas Innovadoras, gastos de definición del proyecto empresarial innovador o de la nueva unidad de negocio.

  En 2022 se han apoyado 64 proyectos empresariales innovadores. Del conjunto de las solicitudes apoyadas, 25 corresponden a proyectos de intraemprendimiento.

  Asimismo, en 2022 se ha apoyado la creación de 28 nuevas empresas y de ellas 8 son el resultado de proyectos de intraemprendimiento.

  En el área de dinamizacion del ecosistema de emprendimiento se han apoyado 6 proyectos.

Halaber, enpresa berritzaileak azkartzeko arloaren barruan, bi proiekturi lagundu zaie.

- Bizkaian industria sortzaileak sustatzea Bizkaia Sortzailea 2022 Programaren, Bilbao Bizkaia Design Council delakoaren kudeaketaren eta sektore sortzaileetako elkarte eta enpresekiko etengabeko lanaren bidez.

  Bizkaia Sortzailea Programaren helburua egun dauden edo sortu berriak diren enpresa sortzaileen proiektuak sustengatzea da. Enpresa sortzaile deritzo ikus-entzunezkoen, bideo-jokoen, modaren, eta produktu, prozesu eta zerbitzuen diseinuaren arloetan jarduten duen enpresari. 2022.urtean, 17 eskaera lagundu dira diruz.

- Gizarte Ekintza Sailaren laguntzaz, Ekintzailetza eta Gizarte Berrikuntza Programa garatzea. Programa hori neurrien multzo askoz zabalago baten zati da, eta multzo horren helburua Bizkaia berrikuntza sozialeko erreferentziazko nodo bihurraraztea da.

  Ekintzailetza eta Gizarte Berrikuntza Programak honako helburu hauek ditu: eremu sozialean ekintzailetzaren eta enpresa izaeraren sustapenari modu positiboan eragiten dioten jarduketak garatzea, enpresa edo erakunde sozial berritzaileen sorrera sustatzea, eta eremu sozialeko eta ekonomikoko eragile guztiekiko lankidetza sustatzea, enpresa edo erakunde sozial berritzaile bihur daitezkeen ideia eta proiektu berrien elementu eragile gisa.

  Programa hiru jarduera arlotan egituratu da: 1. arloa, enpresa proiektu sozial berritzaileak identifikatzea eta baliozkotzea; 2. arloa, enpresa proiektu sozial berritzaileak garatzea; eta 3. arloa, enpresa proiektu sozial berritzaileen hazkundea eta mailakatzea.

También se han apoyado 2 proyectos dentro del área de aceleración de empresas innovadoras.

- Promoción de las industrias creativas en Bizkaia mediante el Programa Bizkaia Creativa 2022, la gestión del Bilbao Bizkaia Design Council y el trabajo continuado con las asociaciones y empresas de los sectores creativos.

  El Programa Bizkaia Creativa tiene por finalidad apoyar nuevos proyectos de empresas creativas, existentes o de nueva creación, entendiendo por empresas creativas aquellas que desarrollen su actividad en las áreas de audiovisual, videojuegos, moda y diseño de productos, procesos y servicios. En el año 2022 se han apoyado 17 solicitudes.

- Desarrollo del Programa Emprendimiento e Innovación Social, en colaboración con el Departamento de Acción Social. Este programa forma parte de un conjunto de medidas mucho más amplio que tiene como objetivo hacer de Bizkaia un nodo de referencia en innovación social.

  El Programa Emprendimiento e Innovación Social tiene por objeto desarrollar actuaciones que incidan positivamente en el fomento del emprendimiento y del espíritu empresarial en el ámbito social, fomentar la creación de empresas o entidades sociales innovadoras y fomentar la colaboración con los distintos agentes del ámbito social y económico como elemento motor de nuevas ideas y proyectos susceptibles de convertirse en nuevas empresas o entidades sociales innovadoras.

  El programa se estructura en tres areas de actuación: área 1, identificación y validación de proyectos empresariales sociales innovadores; área 2, desarrollo de de proyectos empresariales sociales innovadores; y el área 3, crecimiento y escalabiliadad de de proyectos empresariales sociales innovadores.

2022. urtean, ekintzailetzako eta gizarte berrikuntzako programan honako proiektuei eman zie laguntza: 1. arloan 3 proiekturi, 2. arloan 10 proiekturi eta 3. arloan proiekturi 2ei. eman zaie laguntza.

- Bizkaia aurrera! mikrokredituen Programaren jarraipena.

  Programa horrek honakoa du helburu: Bizkaiko autonomoei laguntzea beren prozeduran, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondoren, jarduera ekonomikoa berreskuratzeko eta merkatuak eta lanpostuak finkatzeko. 2020. urtean, 26 eskaera lagundu ziren diruz, eta horietan, hiru hilerik behingo jarraipena egiten da kuoten itzulketari dagokionez.

Jarduera hauei dagokienez, Ekonomia Sustatzeko Sailak egindako ahalegina indartu egiten da Beaz, SAU, Seed Capital de Bizkaia, SA eta Seed Capital Bizkaia Mikro, SA sozietate publikoek sustatzen dituzten jarduera guztiei esker.

Bestalde, Enpresak Sustatzeko Zerbitzua lanean egon da 2022an sortzen diren enpresa berritzaile berri gehiago egon daitezen, eta enpresen proiektu berriei balio erantsi handiagoko zerbitzuak eskain diezaizkien. Horretarako, besteak beste, helburu hauek dituzten ekintzak garatu dira:

- BAT - B Accelerator Tower nazioarteko ekintzailetza-zentroa bultzatu eta abian jartzea. Zentro horrek ahalmen nahikoa dauka startup-ak, enpresak eta inbertitzaileak inplikatuko dituen ekintzailetza-ekosistema oso bat sortzeko behar diren aktore guztiak biltzeko, Bizkaia nazioarteko erreferentziagune bihur dadin. Zentzu horretan, nazioarteko hainbat agenterekiko lankidetza hasi da, negozio berritzaileak zabaldu edo sortu nahi dituzten ekintzaileei eta enpresaburuei laguntzeko.

Durante el año 2022 se ha apoyado 3 proyectos del área 1, 10 proyectos en el área 2 y 2 proyectos en el área 3 del Programa Emprendimiento e Innovación Social.

- Seguimiento del Programa Microcréditos Bizkaia aurrera!

  Este programa pretende acompañar a las personas autónomas de Bizkaia en su proceso de recuperación de la actividad económica y de consolidación de mercadosy puestos de trabajo, tras la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19. En el ejercicio 2020 se apoyaron 26 solicitudes, de las cuales se realiza un seguimiento trimestral en relación a la devolución de las cuotas.

En el conjunto de estas actuaciones el esfuerzo desarrollado desde el Departamento de Promoción Económica se ve reforzado a través de las actuaciones impulsadas desde las Sociedades Públicas Beaz, SAU, Seed Capital de Bizkaia, SA y Seed Capital Bizkaia Mikro SA.

Por otra parte, el Servicio de Promoción Empresarial ha estado trabajando en el año 2022 para incrementar el número de nuevas empresas innovadoras que se crean y ofrecer servicios de mayor valor añadido a los nuevos proyectos empresariales. Para ello se han desarrollado, entre otras, actuaciones destinadas:

- Al lanzamiento y puesta en marcha del centro internacional de emprendimiento BAT, B Accelerator Tower, un centro con capacidad necesaria para aglutinar a todos los actores que son necesarios para la creación de un completo ecosistema de emprendimiento que implique a startups, empresas e inversores posicionándo a Bizkaia como un polo de referencia internacional. En este sentido se stá colaborando con diferentes agentes internacionales para apoyar a personas emprendedoras y empresarias que quieran ampliar o iniciar nuevos negocios innovadores.

- Enpresa berritzaileen sorrera sustatzea, besteak beste, Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberarekiko hitzarmena (pertsona ekintzaileentzako arreta zerbitzuak emateko dena); eta enpresen leihatila eta PAE puntuak mantentzea, enpresa berriak sortzeko eta enpresa horiek eratzeko behar diren izapideak egiteko aholkularitza eskaintzeko helburua dutenak.

- Al fomento de la creación de empresas innovadoras entre las que se encuentran el Convenio con la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao, destinado a la prestación de servicios de atención a personas emprendedoras, así como el mantenimiento de la ventanilla empresarial y de los puntos PAE cuyo objeto es ofrecer asesoramiento para la creación de empresas y la realización de los trámites necesarios para la constitución de nuevas empresas.

- Emakumeen ekintzailetza sustatzea eta horiek gizartean ikusaraztea; horien artean, honako hauek jarduerak daude: Enpresan Bardin, AndreEkintzailea, Observatorio Mujer-Empresa, Inpower Emakumeekin, Bizkaian genero berdintasunari buruzko azterlana.

- Al fomento del emprendimiento por parte de mujeres y a su visibilización social, entre las que se encuentran las actuaciones, AndreEkintzailea, Observatorio Mujer-Empresa, Inpower Emakumeekin y el estudio sobre la igualdad de género en Bizkaia.

- Enpresa proiektuak garatu eta finkatzea, eta ekintzailetza prozesua dinamizatzea; horien artean, honako hauek daude: Beaz-ek egindako jarduketak, ekintzailetza globaleko sarearen garapena Deustuko Unibertsitateari esker, eta ekintzailetza prozesuaren analisiak egitea..

- Al desarrollo y consolidación de proyectos empresariales y la dinamización del proceso emprendedor entre las que se encuentran las actuaciones realizadas por Beaz, al desarrollo de una red de emprendimiento global por medio de la Universidad de Deusto, a la realización de análisis del proceso emprendedor.

- Proiektu estrategiko berri bat abian jartzea, Ezkerraldeko, Meatzaldeko eta Enkarterriko enpresen lehiakortasun digitala hobetzeko.

- A la puesta en marcha de un-nuevo proyecto estratégico que tiene por finalidad mejorar la competitividad digital de las empresas de Ezkerraldea, Meatzaldea y Enkarterri.

- Pertsona ekintzaileak prestatzea eta gaitzea; ekintza horien artean, Mentoring eta Prestaekin programak daude, enpresa kudeaketako gaitasunak gehitzea ahalbidetzen dutenak.

- A la formación y capacitación de personas emprendedoras entre las que se encuentra el programas de Mentoring y Prestaekin que permite incrementar capacidades en gestión empresarial.

- Berrikuntzan, kodetze informatikoan, digitalean, softwarean eta telekomunikazioetan oinarritutako prestakuntza helburu duen 42 Bizkaia Programa abiaraztea eta lehen urratsak egitea. Proiektu honen azken helburua da pertsonen kualifikazioa lortzea eremu digitalean, haien gaitasunak enpresen beharretara egokituz, merkatu globalizatuaren eskaera aldakorretara

- Al desarrollo del programa 42 Bizkaia cuyo objeto es la formación centrada en la innovación, codificación informática, digital, software y telecomunicaciones. El objetivo último de este proyecto es lograr la cualificación de personas en el ámbito digital, adecuando sus competencias a las necesidades de las empresas, permitiendoles adaptarse a las demandas

egokitzeko aukera emanez eta, ondorioz, haien iraunkortasuna areagotuz. 2022an, Bizkaiko 601 lagunek parte hartu dute programaren aldiren batean.

- Enpresa sortzaileak eta industria sortzaileen sektorekoak sustatzea; ekintza horien artean, badaude Beaz-ek BiDC dinamizatzeko egindako jarduketak, Bilbao-Bizkaia Design & Creativity Council Foroa (proiektu sortzaileen baterako garapena helburu duena). Era berean, laguntza eman zaio diseinatzaile gazteei begirako nazioarteko merkaturatze-estrategia bat bultzatzeko proiektuari.

- Inkubagailuen sarea kudeatzea eta enpresa eta pertsona ekintzaileei ematen zaizkien laguntza eta bizkortzeko zerbitzuak mantentzea eta bultzatzea.

- Kultura zientifikoa eta berrikuntza sustatzea, ikerketa eta kultura zientifikoa indartzen duten eta eremu zientifiko-teknologikoan bokazioak pizten dituzten jarduketen bidez.

- Nekazaritzako elikagaien sektorean proiektu berritzaileak sustatzea, Europaren hegoalderako.

- Adin goiztiarretan kultura ekintzailetza sustatzea, ‘Egin eta Ekin’ programaren bidez. Helburu orokorra egiten ikastea eta ekitea da, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak nork bere gain hartzeko ekimena izanda, zailtasunak gainditzeko gaitasuna eta ahalegina baloratuta, eta bizitzaren eremu guztietan ekimen ekintzaileak gauzatuta. Halaber, ekintzailetzaren kultura Bizkaiko Campuseko unibertsitatean sustatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak egin dira, bai ikasleen artean, bai irakasleen eta ikerlarien artean.

- Europako baterako finantzaketaren xedeko jarduketak jarraitzea eta justifikatzea.

cambiantes de un mercado globalizado y, por tanto, incrementando su sostenibilidad. En el año, 2022, 601 personas de Bizkaia han participado en alguna de las fases del programa.

- Al fomento de empresas creativas y del sector de las industrias creativas entre las que se encuentran las actuaciones realizadas por Beaz para la dinamización BiDC, Foro Bilbao-Bizkaia Design & Creativity Council, cuyo objetivo es el desarrollo conjunto de proyectos creativos. Asimismo, se ha apoyado un proyecto para lanzar una estrategia de comercialización internacional para jóvenes diseñadores.

- A la gestión de la red de incubadoras, y al mantenimiento y fomento de los servicios de apoyo y aceleración que se prestan a las empresas y personas emprendedoras.

- Al desarrollo de actuaciones de fomento de la innovación y la ciencia que promuevan la investigación, la cultura científica y la innovación para que se incentiven las vocaciones en el campo científico-tecnológico.

- A promover proyectos innovadores en el sector agroalimentario para el sur de Europa.

- Al fomento de la cultura emprendedora en edades tempranas a través del Programa ‘Egin eta Ekin’. El objetivo general es aprender a hacer y emprender, teniendo iniciativa para tomar decisiones y asumir responsabilidades, valorando el esfuerzo y la superación de las dificultades y practicando iniciativas emprendedoras en los diferentes ámbitos de la vida. Asimismo, se realizan actuaciones destinadas a la sensibilización y fomento de la cultura emprendedor entre la población unviversitaria, tanto alumnado como personal docente e investigador, del Campus de Bizkaia.

- Al seguimiento y justificación de actuaciones objeto de cofinanciación europea.

- Erakunde publikoen eta pribatuen arteko eta erakundeen arteko lankidetza indartzea, jarduera ekonomikoak eta sozialak egiteko proiektuetan parte hartuz, baita proiektu estrategikoetan eta handietan ere (hala nola Bec, SA edo Bizkaiko Parke Teknologikoa) eta Bizkaiko Nazioarteko Ekintzailetza Zentroa, BAT, B Accelerator Tower izenekoa.

Talentua erakartzeko arloan, honako jarduera hauek egin dira:

- Hobekuntza profesionaleko programa garatzean, graduondoko gazteen bikaintasuneko esperientzia babestu nahi da. Horretarako, hobekuntza profesionaleko ikastaroak egiten dira atzerrian ospetsuak diren nazioarteko zentroetan, edo Euskal Herriko unibertsitate batekin uztartzen dira, prestakuntza akademikoa osatu eta Bizkaiko ikerketa zentro, enpresa edo unibertsitateetan sartzeko aukerak hobetze aldera. Babestutako eskariak 59 izan dira.

- Talentua erakartzeko dirulaguntzen programa berri bat jarri da abian, prestakuntza eta esperientzia profesional handia duten profesionalak Bizkaira erakartzea, lurraldera itzultzea, sustraitzea eta talentua atxikitzea errazteko eta laguntzeko, euren lanbide-ibilbidea Bizkaian jarrai dezaten, profesional horiek, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ari baitira lanean.  Oraingoz, 7 lagun erakarri dira.

- Confebask eta Ikaslan Bizkaia babestea, honako helburu hau duen programa garatzeko: unibertsitateko eta lanbide heziketako ikasle eta titulatu berri gazteen enplegagarritasuna hobetzea, eta, horretarako, praktikak egitea enpresa europarretan, beren nazioarteko dimentsioa gara dezaten, eta, aldi berean, hizkuntzak ikasi eta prestakuntza jaso Europar

- El refuerzo de la colaboración público-privada e interinstitucional a través de la participación en proyectos destinados al desarrollo de actividades económicas y sociales asi como en el desarrollo de proyectos estratégicos y de envergadura, tales como Bec, SA Parque Tecnológico de Bizkaia y el Centro Internacional de Emprendimiento de Bizkaia, denominado BAT, B Accelerator Tower.

En el área de promoción del talento se han realizado las siguientes actuaciones:

- Desarrollo del programa perfeccionamiento profesional que tiene por objeto apoyar la formación de excelencia de jóvenes posgraduados y posgraduadas, mediante la realización de cursos de perfeccionamiento profesional en centros internacionales de prestigio en el extranjero, o en combinación con una universidad del País Vasco, con el objetivo de complementar su formación académica y mejorar sus posibilidades de integración en las empresas, universidades o centros de investigación de Bizkaia. El número de solicitudes apoyadas ha sido 59.

- Desarrollo del programa de subvenciones de Atracción de Talento con el fin de facilitar y apoyar la atracción, repatriación, vinculación y retención de talento a Bizkaia de personas profesionales con amplia cualificación y experiencia profesional, que se encuentran re-sidiendo y trabajando fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco para que continúen su carrera profesional en Bizkaia. El número de pesonas atraidas han sido 7.

- Apoyo a Confebask e Ikaslan Bizkaia para el desarrollo de un programa que tiene como objetivo la mejora de la empleabilidad de las personas jóvenes recién tituladas y estudiantes de universidad y de formación profesional mediante la realización de prácticas en empresas europeas a fin de que desarrollen su dimensión internacional a la vez que obtienen unos

Batasuneko herrialdeetako kultura enpresarialetan. 244 gazte bizkaitarri mugitzen lagundu zaie.

conocimientos de idiomas y una formación en las culturas empresariales de los países de la Unión Europea. Se ha apoyado la movilidad de 244 jóvenes vizcainos.

- Hainbat lankidetza hitzarmen sinatu dira Euskal Herriko Unibertsitatearekin, zenbait master egiteko: enpresen zuzendaritza eta kudeaketa (35 partaide), merkataritza zuzendaritza eta marketina (28 partaide), ekintzailetza eta enpresa zuzendaritza (17 partaide).

- Se han suscritos diversos convenios de colaboración con la Universidad del Pais Vasco para la realización de diversos másters: en dirección y gestión de empresas (35 participantes), en marketing y dirección comercial (28 participantes), en emprendimiento y dirección de empresas (17 participantes) y en Mercados Financieros y Banca Privada (18 participantes).

- Erakunde desberdinekin lankidetza ezarri da, ingeniaritzako ikasleak kualifikatzeko, honako proiektu hauek babestuz: Formula Student, Moto Student eta Bisky Team. Proiektuetako partaide kopurua 64, 14 eta 59 izan da, hurrenez hurren.

- Se ha colaborado con diferentes organismos para la cualificación de estudiantes de ingeniería a través del apoyo a los siguientes proyectos: Formula Student, Moto Student y Bisky Team, siendo el número de participantes de los proyectos 64, 14 y 59 respectivamente.

- Gela Aeronautikoan (103 partaide) eta Espazio gelan (28 partaide) gazteei prestakuntza espezifikoa emateko EHUri babesa ematen jarraitu da.

- Se ha continuado con el apoyo a la UPV en la formación específica de jóvenes en el aula Aeronáutica (103 participantes) y el aula Espazio (28 participantes).

- Mondragon Unibertsitateak kudeatzen duen proiektu berri bat jarri da martxan, talentu ekintzaile orokorra erakartzeko programa bat burutzeko, talentua Bizkaira erakartzeko asmoz.

- Se ha puesto en marcha un nuevo proyecto gestionado por Mondragon Unibersitatea para llevar a cabo un programa de atracción de talento emprendendedor global, con el fin de atraer talento a Bizkaia.

- Industria Erronka proiektuarekiko lankidetzan aritu gara. Proiektu horrek Bizkaiko industria-enpresen eta ikastetxeen arteko topaldiak eta jarduerak sortzen ditu, Bizkaiko industriaren errealitatea erakusteko, sektorearekiko interesa pizteko, etorkizunerako aukerak erakusteko eta bokazio teknologikoak bultzatzeko, interes publiko sozial eta ekonomiko handikotzat jotzen baita Bizkaiarentzat. Topaldi horietan, 49 enpresak eta 3.401 ikaslek parte hartu dute.

- Se ha colaborado con el proyecto Industria Erronka , proyecto que genera encuentros y actividades entre empresas industriales y centros educativos de Bizkaia para mostrar la realidad de la industria vizcaína con el fin de generar interés por el sector, mostrar oportunidades de futuro e impulsar vocaciones tecnológicas, lo que se considera de gran interés público, social y económico para Bizkaia. En dichos encuentros han participado 49 empresas y 3.401 estudiantes.

- Ikasle gazteenen artean bokazio zientifiko eta teknologikoak sustatzeko babesa eman da, eta,

- Se ha apoyado la promoción de las vocaciones científicas y tecnólogicas entre los y las

horretarako, lankidetzan aritu da Bizilabe eta Zientzia Azoka proiektuekin.

- Lankidetza ezarri da Bizkaia Talentekin, kualifikazio altuko pertsonak atxiki, erakarri eta lotzeko baldintza eta prozesuak sustatu eta bultzatzeko beharrezko ekintzak egiteko, eta, horretarako, Bizkaiko erakundeen ezagutza aurreratuaren eta berrikuntzaren arloak indartu dira.
- Era berean, lankidetza ezarri da EHUrekin Familia Enpresaren Katedra garatu eta eusteko prozesuan.
- Lankidetza ezarri da BCAM, Basque Center For Applied Mathematics delakoarekin, Data science eta Isuri dinamiko konputazionaleko arloetan ezagutza garatzeko eta start-up eta ETEetara transferitzeko.
- COMTALENTO programa martxan jarri da, askotariko agenteak elkartu daitezen talentua sortu, garatu, erakarri eta atxikitzeko, Bizkaiaren lehiakortasunerako faktore giltzarri gisara.
- GreenPower Bridgestone nazioarteko zirkuitua antolatzen lagundu da. Zirkuitu hori nazioarteko hezkuntza-programa baten zati da, zeinaren helburua baita ikasleen artean STEM gaitasunak garatzea.

Enpresa Sustatzeko Zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunerako sailaren barruko batzordean parte hartu du.

estudiantes más jóvenes mediante la colaboración con los proyectos Bizilabe y Zientza Azoka.

- Se ha colaborado con Bizkaia Talent para la realización de las acciones necesarias para impulsar y favorecer las condiciones y procesos de retención, atracción y vinculación de personas altamente cualificadas, fomentando las áreas de innovación y conocimiento avanzado de las organizaciones de Bizkaia.
- Asimismo se ha colaborado con la UPV en el desarrollo y sostenimiento de la Cátedra de Empresa Familiar.
- Colaboración con  BCAM, Basque Center For Applied Mathematics, para el desarrollo de conocimiento en las áreas de Data science y Fluido dinámica computacional y su transferencia a start-ups y PYMEs.
- Se ha puesto en marcha el programa COMTALENTO que pretende aunar a diferentes agentes para la generación, desarrollo, atracción y retención del talento como factor clave para la competitividad del territorio de Bizkaia.
- Se ha apoyado la organización del circuito internacional GreenPower Bridgestone, que forma parte de un programa educativo internacional que tiene como objeto el desarrollo de las competencias STEM entre personas estudiantes.

Desde el Servicio de Promoción Empresarial se ha participado en la comisión intradepartamental para la igualdad de de mujeres y hombres.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **08. Ekonomia Sustazeko**<br>**08. *Promoción Económica*** | **03.** Enpresa Sustapena<br>**03.** *Promoción Empresarial* | **426.106** Enpresa Sustapena<br>**426.106** *Promoción Empresarial* |

Txosten honetan azaldutako jardueren eta ekimenen garapena, kudeaketa eta koordinazioa gauzatu ahal izan dira 2022. urtean pertsona talde baten konpromisoari eta laguntzari esker; izan ere, Sailak, foru sozietateak eta Sailak lagundutako gainerako erakundeek uste osoa dute oso garrantzitsua dela lan eraginkorra, gertukoa eta profesionala ematea Bizkaiko Lurralde Historikoan ekintzailetza eta garapen ekonomikoa bultzatzeko eta sustatzeko.

El desarrollo, gestión y coordinación en el 2022 de las actuaciones e iniciativas descritas en esta memoria ha sido posible gracias al compromiso y la colaboración de un equipo de personas que, tanto desde el Departamento como desde las Sociedades Forales y el resto de entidades con las que se colabora, está convencido de la importancia del desarrollo de un trabajo eficaz, cercano y profesional por el impulso y el fomento del emprendimiento y del desarrollo económico del Territorio Histórico de Bizkaia.